



VIII. Kizki Eguna Astigarragan.

📅 Ira 13, 2016 🌐 Sailkatu gabea 💬 0 comments



Aurtengoan zortzigarren edizioa izango du Kizki Egunak eta datorren irailaren 25ean, igandez, ospatuko da Astigarragan, 2009an lehen aldiz egin zenetik eskualdeko herrietan urtez urte egin bezala.

Kizki eguna **GOLDEA** elkartearen ekimenez sortu zen, sagardogintzari lotutako kultura, eta zehatzago esateko, sagarra biltzeko prozesua eta kizkia bera, alegia, sagastietan sagarra lurretik biltzeko erabili ohi duten tresna, ezagutarazteko helburuarekin.

Kizki Eguneko jarduera nagusia aldi berean kizkiarekin sagar biltzen ahalik eta jende gehien biltzea izan da, betiere marka edo errekorra ezarri

nahian. Helburu hori gogoan, **Astigarragak ezarri zuen lehen marka, 311 lagun (kizki-lagun deitzen ditugunak)** bildu baitzituen zeregin horretan. Ondoren etorri ziren Oiartzun, 354 kizki-lagunekin, Goizueta 400 lagunekin, Hernani 436rekin, Donostia 347rekin eta Usurbil 173rekin. Iazkoan, aldiz, **441 kizki-lagun bildu ziren Errearterian.**

Aurtengo edizioarekin Astigarragan bertan hasitako bideari eman nahi zaio amaiera. Amaiera horretarako errekorra ezarri nahi da berriz ere, eta helburu horrekin batuko dituzte indarrak Kizki egunak antolatu izan dituzten zazpi udalerriek. **700 kizki-lagun biltzea izango da erronka, aldi berean kizkiarekin sagarra bilduko duten 700 lagun elkartzea.**

Ekimen honetan parte hartu nahi dutenek ondorengo web-orrian **eman ahal izango dute aurrez izena: www.sagardoarenlurraldea.eus**. Egunean bertan ere izango da horretarako **aukerarik**. Kizkiak euro 1en truke eskuratu ahal izango dira errekorra ezartzeko ekitaldia hasi aurretik. Norberak ekarritakoa ere erabili ahal izango da, noski. Kizkia etxetik ekarri edo bertan eskuratu, 16 urtetik gorakoek izena eman egin beharko dute, hori ezinbestekoa baita azkenean marka ezarriko duten pertsonen kopurua zehaztu ahal izateko.

VIII. Kizki Eguna **XVI. Sagar Uzta 2016** jaiaren baitan gauzatuko da, eta Sagardoaren Lurraldearen laguntzaz. Eguneko egitaraua 12:30ean hasiko da, erronkan parte hartuko duten zazpi herrien arteko marmitako txapelketarekin. **13:00etan izango da marka berria ezartzeko ekitaldi nagusia.** Ondoren etorriko da herri bazkaria, eta arratsaldean, 17:30ean

hasita, sagar biltzeko, garraiatzeko eta txikitzeko desafioa, zazpi herrietako taldeen artekoa.

Kizki Egunaren antolatzaileek (Astigarragako GOLDEA elkarteak, Oiartzungo herriak, Goizuetako herriak, Hernaniko Sagardo Kofradiak -orain gutxi bere jarduna bertan behera utzi badu ere-, Donostiako Parte Zaharrean Bizi elkarteak, Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunek eta Errenteriako elkarteak) sagardoaren kulturen hain errotuta dagoen **jai honetan parte hartzeko deia egin nahi diete beren herrietako herritarrei, baita erronkan parte hartu nahi duten gainerako guztiei ere.**

Bilatzailea

Bilatu

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea▼

Privacidad - Condiciones

ZATOZ ETA GOZATU



Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak

**EUSKADI**
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)